


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2016KO MARTXOA

Euskal AEko industria-jarduera %4,0 gehitu zen 2016ko martxoan

Industri Produkzioaren Indizeak %5,1eko gehikuntza izan du 2016ko lehen hiruhilekoan

Eustaten datuen arabera, 2016ko martxoan %4,0 gehitu zen Euskal AEko industria-produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2015eko hil beraren aldean. Industri Produkzioaren Indizeak %5,1eko gehikuntza izan du 2016ko lehen hiru hiletan.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,2 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2016ko otsailaren aldean.



2016ko martxoko indizearen bilakaeran, 2015ekoaren aldean, hazkundeak industriaren sektore handietan. Energia %11,9, Ekipo-ondasunak %6,0, Bitarteko

ondasunak %2,7. Kontsumo-ondasunak %1,5 gehitu guztira; iraunkorrak %2,8, ez-iraunkorrak %1,0.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreetan, hazkundeak zortzietatik zazpitan, 2016ko martxoan, urte artean. Nabarmentzekoa Garraio materiala, %17,7ko hazkundeak. Beste hazkundeak: Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (%8,3); Kautxu eta plastikoa (%4,1), Elikagai industriak, edariak eta tabakoa (%3,6), Zura, papera eta arte grafikoak (%3,6). Metalurgia eta metalezko produktuetan %1,6ko gehikuntza; azpisektoreetan, nabarmentzekoa Siderurgia (%-19 inguru).

Jaitsiera bakarra sektore handietan: Material eta Ekipo elektrikoa, %-4,4.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	1,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	8,3
09 - Kautxua eta plastikoak	4,1
13 - Makineria eta tresneria	0,2
14 - Garraio-materiala	17,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	3,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	3,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen martxoko urte artekoa, positiboa hiruretan: Araban %14,8; Bizkaian %1,3; Gipuzkoan %1,2.

Hil artean, 2016ko otsailaren aldean: Araban %+2,9, Bizkaian %+0,8, Gipuzkoan %-1,8.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2016ko Martxo

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mar2016/Mar2015	A(Mar2016)/A(Mar2015)(*)	Mar2016/Ots2016	Ots2016/Urt2016
Indize orokorra				
Euskal AE	4,0	5,1	0,2	-0,1
Araba/Álava	14,8	13,0	2,9	-2,2
Bizkaia	1,3	2,5	0,8	-0,4
Gipuzkoa	1,2	3,5	-1,8	1,5
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	1,5	2,3	0,7	-4,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	2,8	4,2	1,1	-8,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,0	1,6	0,5	-2,8
Ekipo-ondasunak	6,0	13,1	-2,3	0,1
Bitarteko ondasunak	2,7	3,1	0,9	0,1
Energia	11,9	0,8	7,4	-0,9

(*) 2016ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2015eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua